

zumaiia

9. zenbakia • 2010eko Ekaina

ZU
udalaldizkaria



Zumaiko Udala



Mugi Zumaian bizikletaz

Bizikletak maileguan hartzeko MUGI zerbitzuak urtea bete du. Proba pilotuaren ondoren, zerbitzua hobetu eta indartzeko urratsak ematen jarraitzeko asmoa du Udalak

aurkibidea

2 Hirigintza departamentua

3 Inkesta

4 Udala zuzenean

5 Herritarren ahotsa buzoietan

6 Motxian

8 Mugi bizikleta zerbitzua

11 Hondartza-hezitzailea

12 Etxebizitza beharra

13 Mojaxarren komentua

14 Zumartian

16 Eraikitzen

17 Alderdien iritzia

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiaiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaiaiko Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; Hirigintza departamentua



Udaletxeko bigarren solairuan dago Zumaiaiko Udaleko Hirigintza, Ingurumen eta Obra eta Zerbitzuen departamentua. Herritarrei hainbat tramite, zerbitzu eta laguntza bideratzeaz arduratzen dira eta baita, herriko planeamendu orokorrean zehaztutako irizpideak jarraitu eta aplikatzea. Eskaintzen dituzten laguntzen artean daude igogailuak jartzeko edota etxebizitzaren fatxadak konpontzeko diru-laguntzak. Tramiteen artean, berriz, obra txiki eta handietarako baimenak edota jardueren gaineko kontsulta eta esku-hartzeak izan ohi dira ohikoenak. Eta horiekin batera, herriko kale eta eraikin publikoetako mantentze-lanak edota ingurumen arloko ekintzak daude euren gain.

El Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios y Medioambiente se encuentra en la segunda planta del Ayuntamiento. Entre diversas funciones se encargan de dar continuidad al planeamiento urbanístico vigente en el municipio. También se encargan de la concesión de ciertas subvenciones, como es el caso de las fachadas o la instalación de ascensores.

Ordutegia / Horario:

Hirigintzako bulego ordutegia Horario de oficina:

Asteleheneretik ostiralera, 7:30etik 14:30era.
De lunes a viernes, de 7:30 a 14:30.

Hirigintzako teknikarien harretarako ordutegia Horario de atención al público de los técnicos:

Astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 14:30era.
Martes y jueves, de 11:00 a 14:00 h.

Zure iritzian zein da zaborren kudeaketarako eredu egokiena?



Pedro Mora

Erantzun zehatz bat emateko, sakonago aztertu beharko lirateke beste ereduak, atez atekoaren kasua adibidez. Kontua asko politizatu dela uste dut, hala ere, eta herritarrak noraezean gabiltzala uste dut. Niretzat, herritar gisa, uste dut erosoagoa izango dela orain arteko sistema, alegia, bost edukiontziena. Hala eta guztiz, zaborra gaika biltzearen alde nago, horrek asko jaitsiko bailuke zabor kantitatea. Hala eta guztiz, gero gelditzen den zaborra erre egin beharko litzateke erraustegien bidez.

Creo que se ha politizado el tema y los ciudadanos andamos un poco desorientados.



Mendi Gorostiaga

Herritarren artean eztabaida hau libreki erabakitzeke aukera emango balute, erosotasunerako joera gailenduko litzateke, eta horrek ezin du arrazoi bide izan. Ingurumenaren alde eta gure bizi kalitatea hobetzeari begira diseinatu beharko litzateke kudeaketa eredu. Egungo ereduak ez dauka behar adinako arrakastarik eta portzentajeak ez dira onak, aukeran jartzen zaigulako birziklatu edo ez. Horregatik egiten dut nik atez atekoaren aldeko apustua, birziklatzea arrakastatsua delako datuei begiratuz soilik.

Las cifras en cuanto al reciclaje son más exitosas en el puerta a puerta.



Josu Etxabe

Herritar guztioi eragiten digun gaia denez zaborrarena, ondo ikusten dut administrazioek herritarren iritziak jasotzea. Herritarrok kontzientzia hartu beharra daukagu, gaian inplikatu eta ahalik eta zabor gutxien produzitu. Hala eta guztiz, erraustegiaren proiektua ez dut gaizki ikusten, eta orain gainera, teknologia berriekin egindako azpiegiturak badaude zaborra errausteko. Atez atekoarena ez dut uste oso proposamen praktikoa denik. Zumaiari, adibidez, ez dut uste aukera erreala izango zenik.

Los ciudadanos debemos tomar conciencia para producir menos residuos.



Olatz Goiburu

Aitortu behar dut gaiaren inguruko informazio gehiegirik ez dudala jaso oraingoz. Hala ere, dakidana da erraustegiak ez direla onak gure osasunarentzako, eta inork ez dituela nahi bere herriaren alboan. Beraz, ez nago kudeaketa eredu horren alde. Atez atekoaren esperientzia ez dut gehiegi ezagutzen oraindik, eta informazio askorik ez dut jaso egia esan. Dena dela, ni neu bosgarren edukiontzien erabiltzailea naiz eta ez zait batere kostatzen zaborra gaika botatzea zakarretara. Guztiok inplikatu beharko genuke gai honetan.

Lo que yo sé es que nadie quiere una incineradora al lado de su pueblo.

udala zuzenean



badator udara eta toaila hondarretan botatzeko aukera laster izango dugu, ez edozein lekutan gainera. Zumaiaiko hondartzak aberatsak dira geologia, ingurumen eta biologia ikuspuntutik. Batean estratotipoak dauzkagu eta bestea, berriz, Garrantzi Komunitarioko Gunea da. Bi altxor hauek ezagutzeko eta zaintzeko aurten hondartza-hezitzailea izango dugu herriko hondartzetan. Ezagutzen duguna, maitatzen dugulako eta maitatzen duguna zaintzen dugulako. Beraz, toaila hondarretan jartzearekin batera, jar dezagun gure hondar aletxoak hondartzetan zaintzan eta babesean.

junto con la época estival, llega la hora de poner nuestras toallas en la arena. Las playas de Zumaia son importantes lugares de interés desde el ámbito de la geología, biología, o el medioambiente. En una disponemos de estratotipos y la otra es declarada como Lugar de Interés Comunitario. Para dar a conocer sus valores y fomentar actitudes respetuosas con el medioambiente, este verano tendremos una educadora trabajando en nuestras playas. En ese sentido, todos y todas debemos aportar nuestro granito de arena en respeto a la naturaleza.

Udalaren ataria bisitarien bilgune

Urtebete pasa da Udalak www.zumaia.net edukiz eta diseinuz guztiz berritu zuenetik. Ordutik bisitarien kopuruak gora egin du etengabe, eta bisitari berrien portzentajea ere oso esanguratsua izan da urtebete honetan; %42,17 bisita berri izan ditu Udalaren atariak.

Urtebete honetan, guztira, **110.000 bisitatik gora** jaso ditu webguneak, eta 538.234 orrialde kontsultatu dira. Egunero, batzaz beste, 500 bisita inguru jasotzen ditu Udalaren atariak, asteburutan, berriz, 200 bisita inguru jasotzen dira. Batzaz beste, %42,17 bisitari berri izan dira urtebete honetan guztian eta bisitari berri horiek batzaz beste 5 orrialde kontsultatu dituzte bisita bakoitzean.

Turismoko webgunea eta Udalarena batzea izan zen komunikazio plan berriaren erroka. Lehen www.zumaiaturismoa.com helbidea zuen turismoko orriak. Plan berriaren baitan, zumaia.net helbidearen barruan sartzea erabaki zen, bi sailak, "txapel edo marka" baten barruan azaldu eta indartzeko asmoarekin. Herritarrei herriko ingurunearen informazioa eskaintzeaz batera, kanpotarrei herriko informazio praktikoa ematea zegoen asmo horren funtsean. Bada, apustu horrek emaitza onak ekarri ditu. Azken hiru hilabeteak kontuan hartuta adibidez, 66.879 bisita jaso dira turismoko orrialdeetan.

Euskaraz zein gaztelera eskaintzen du informazioa www.zumaia.net orriak. Turismoko atalak, berriz, bi hizkuntza horiez gain, ingelesezko eta frantsesezko bertsioak ere baditu. Bisitariak erabiltzen duten hizkuntzei erreparaturata, azken hilabeteak datuak erreferentzia gisa hartuta, 19.960 bisita jaso dira euskaraz, 29.541 gaztelera, 407 bisita izan dira ingelesezko orrietan, eta 243 bisita jaso dira

frantsesezko atalean. Mundu guztiko bisitariak kontsultatu dute Udalaren ataria azken urte honetan. Nagusiki Espainiar Estatuko bizilagunak izan dira bisitariak, Frantziatik ere bisita ugari jaso dira, eta baita Ameriketako Estatu Batuetatik. Horien atzetik daude, Alemania, Irlanda eta Erresuma Batua.

Hobekuntzak turismoko orrialdean

Diseinu erraz eta erakargarria eskaintzeaz gain, hainbat aplikazio berri jarri dira turismoko atalean. Eduki guztia eguneratu da eta horrekin batera, ingelesezko eta frantsesezko bertsio eguneratu berriak argitaratu dira. Horrekin batera, kirol portuko webcam-aren aplikazioa abian jarri da webgunean eta azkeneko hilabetean, adibidez, 35 bisita jaso ditu atal horrek.

La nueva página web del Ayuntamiento cumple su primer año registrando más de 110.000 visitas. En un solo año se han consultado cerca de 540.000 páginas y el porcentaje de nuevas visitas asciende a un 42,17%. El éxito del portal municipal viene por la incorporación de un diseño innovador y accesible de la página, la fusión del portal de turismo y la del Ayuntamiento en una sola marca, el noticiero de la actualidad local, o la opción de enviar las sugerencias al Ayuntamiento. También están despertando gran interés entre los visitantes del portal las entrevistas digitales realizadas a todos los portavoces de grupos políticos que componen el pleno municipal o el servicio del webcam en el apartado de turismo.

Herritarren ahotsa buzoietan



www.zumaia.net

Iradakizuna

Anbulatorio zaharreko teilatua

Anbulatorio zaharraren teilatua ikusten da gure etxetik, eta agerian da teila asko solte daudela erortzeko zorian, teila horietako asko kaleko aldean. Iruditzen zaigu edozein haizeterekin arriskutsua dela. Eskerrik asko.

Erantzuna

Eskerrik asko zure ekarpenarengatik eta kontuan hartuko da Hirigintzako departamentuan. Ondo izan.

Sugerencia

Vallas en la calle Etxezarreta

¿Podría alguien darme una explicación porqué se quitaron las vallas de la calle Etxezarreta, pues ahora toda la gente pasa a libre albedrío por cualquier lado. Gracias.

Respuesta

El Ayuntamiento eliminó las vallas de la calle Patxita Etxezarreta con el propósito de mejorar la accesibilidad de esta zona. Hasta más de año y medio, la carretera que transcurría esta calle era la principal para cruzar la localidad y estos soportes tenían la

función de proteger a los viandantes de la circulación de los vehículos. Desde la puesta en marcha de la variante, se ha disminuido considerablemente el tráfico y en ese sentido, el Ayuntamiento quiere caracterizar esta calle como urbana. Mediante la eliminación de las vallas se ha cambiado el aspecto urbano de la zona en cierto punto, y del mismo modo, se ha mejorado la accesibilidad.

Dicho eso, solo tenemos que añadir que es responsabilidad de cada uno hacer un uso correcto de los viales. Gracias por participar y un saludo.

Iradakizuna

Alde Zaharreko zakarrontziak

Alde zaharreko kaleak (Harategiko kalea, San Pedro, Zumbillo, Nagusia, Olazabal, Mari, etab.) zakarrontzi txiki gabe daudela uste dut. Eskertuko nizuke errepasso txiki bat egitea.

Erantzuna

Alde Zaharrean oraintxe jarri berriak dira zakarrontzi berriak. Momentuz gutxi dira jarri diren unitateak, baina Udala gehiago eskatzekotan da, aipatzen dituzun eremu horietarako. Epe motzean zakarrontzi berri gehiago izango dira Alde Zaharrean.

Iradakizuna

Darse de alta como autónomo

Egunon: Quisiera saber si para darme de alta como autónomo y en el IAE, podría hacerlo en el Ayuntamiento o tendría que ir a Hacienda (Donostia o Azpeitia). Eskerrik asko. Oh: Erantzuna euskaraz izan daiteke.

Erantzuna

Udaleko Kontu-hartzaitzako bulegoetatik jakinarazi dutenez, IAE-n eta autonomo gisa alta emateko Donostiako

Okendo auzoko 20. zenbakian dagoen Ogasunaren bulegoetara jo behar duzu. Azpeitiko Ogasunaren bulegoetan diru-bilketa egiten dute, baina ez gestioa. Beraz, Donostiako bulegoetara joan beharko duzu.

Sugerencia

Solicitud de empadronamiento

Egun on, vivo en Zumaia en un piso de alquiler y quisiera empadronarme. ¿Me podríais indicar cuales son los requisitos? ¿Que horario de oficina tenéis? Agur bat.

Iñaki.

Respuesta

Para proceder al empadronamiento en la localidad de Zumaia tienes que acudir al Ayuntamiento con los siguientes documentos: certificado del contrato de alquiler y el DNI. El horario del Ayuntamiento es de 7:30 a 14:30.

Iradakizuna

San Pedro jaiak

Durangaldeko neska koadrila bat gara eta aurten zuen herriko San Pedro Jaiak noiz ospatzen diren jakitea nahiko genuke, hain zuzen ere, aurton San Pedro eguna asteartea da eta hurrengo asteburuen, hau da, uztaileko 1. asteburuan (uztailak 2 eta 3) oraindik jaiak ospatzen dituzuen jakin nahi dugu.

Aurretiaz eskerrrik asko. Zuen erantzunaren zain geratzen gara. Ondo izan!

Matxalen

Erantzuna

Aurten ekainaren 26tik 29ra bitartean ospatuko dira Zumaian San Pedro jaiak. Tamalez, festak ez dira luzatuko zuek diozuen asteburu horretara, alegia uztailearen 2 eta 3ra.

Ondo izan eta beste bat arte.

Musika Eskola kudeatzeko lehiaketa publikoa deitu du Musika Patronatuak




Zumaiako Musika Patronatuak abian jarri du Zumaiako Musika Eskolaren kudeaketaz arduratzeko lehiaketa publikoa. Musika eta Dantza zerbitzuen kudeaketa izango da eta Udala partaide den Patronatuak eramango du aurrera kontratazioa. Lehiaketako oinarriak Udalaren www.zumaia.net webgunean kontsultatu daitezke, eta eskaintzak aurkezteko epea, berriz, ekainaren 11n bukatuko da. Ordura bitartean, udaletxeko bulegoetan eta bulegoko ordutegian aurkeztu beharko dira proposamenak.

Musika Eskolako pleguak berritzearekin batera, Udalak Musika Patronatuari buruzko hausnarketa sustatu zuen herriko eragile desberdinen artean. Prozesu hartatik jasotakoa apirilko ZumaiaZu aldizkarian kontsultatu daiteke.

El Patronato de Música de Zumaia ha puesto en marcha el concurso público para la contratación de la gestión del servicio para impartir clases de música y baile en Zumaia. Las bases de la convocatoria se pueden descargar en la página web del Ayuntamiento y el plazo para presentar las propuestas finaliza el 11 de junio. Las propuestas se deberán entregar en las oficinas del Ayuntamiento, en horario de oficina (de 7:30 a 14:30).

Eska itzazu jakiak euskaraz



Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuak hainbat egitasmo abiatu ditu, merkataritzan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko. Hizkuntza-paisaia euskaldundu eta euskarazko salerosketa bultzatzea da helburua, eta horretara bidean, herriko janari-dendetan euskarazko kartelak banatzen ari dira, bezeroek produktuak errazago identifika ditzaten. Hala, joan den apirilean banatu zituzten kartelak okindegietan eta orain, banatu berri dituzte fruta dendetan ere. Ekainean, harategien txanda izango da, eta uztailean arrandegiena. Kartel horien laguntzarekin, arrain motak errazago bereiziko dituzte bezeroek, abereen atalak, era bateko eta besteko ogiak, fruten izenak euskaraz... Eska itzazu zeuk ere jakiak euskaraz.

El Departamento de Euskera del Ayuntamiento está promoviendo diversas iniciativas para incitar el uso del euskera en los establecimientos comerciales de la localidad. En ese sentido, han diseñado diversos carteles para repartirlos en tiendas de alimentación del municipio. Se trata de dar a conocer los productos en euskera, para que el cliente los pueda identificar fácilmente. En abril repartieron los carteles en las panaderías, y ahora acaban de colocar los carteles informativos en las tiendas de fruta.

Lurraren historiako lerroak



Itzurungo itsaslabarra “Nazioarteko Erreferentzia Geologiko” izendatu berri ditu ofizialki Nazioarteko Estratigrafia Batzordeak (ICS). Maiatzaren 6an egin zuten izendapenaren ekitaldi ofiziala Zumaian eta gonbidatuen artean ziren Markel Olano Diputatu Nagusia, Nazioarteko Estratigrafia Batzordeko lehendakari Stanley Finney, Eustoquio Molina Paleogenoko azpibatzordeko lehendakaria, eta Zumaia alkate Iñaki Agirrezabalaga.

Aurki hiru urte beteko dira Workshop 2007 taldeak Itzurungo itsaslabarra Paleozenoaren nazioarteko erreferentzia izatea proposatu zuela. Harrezkero, azterbide luzea pasatu du proposamenak eta, behar izan dituen bozketa eta izapide administratibo guztiak gainditu eta gero, azkenean aitortena gauzatu da, nazioartean erreferentziazko izatera aitortu zaio Zumaia itsaslabarrari.

Los acantilados de la playa Itzurun han sido oficialmente definidos referencia geológica internacional por la ‘Comisión Internacional de Estratigrafía’. Así lo demuestran los Golden Spike colocados en la playa Itzurun. Con este nombramiento por la ‘Comisión Internacional de Estratigrafía’ (ICS) el Flysch de Zumaia pasa a formar parte del libro oficial de la historia de la Tierra.

‘Yucca Gloriosa’ landare inbaditzailea



Irudian, Itzurungo hondartza Yucca kendu aurretik.

Zumaia Udaleko Ingurumen sailak Yucca Gloriosa landare inbaditzailea kentzeko kanpaina gauzatu berri du. Espezie hau Euskal Autonomi Erkidegoan oso murrizta den arren, Santiago hondartzako dunetan eragin nabarmena izaten ari da, eta hori dela eta erabaki du Udalak landare inbaditzaile honen garbiketa egitea. Era horretan 48 bat landare sustraitik atera eta gainerako guztiak errotik moztu dira.

Udala Zumaia Natur Taldearekin lankidetzan ari da landare inbaditzaileen kontrako esku-hartzeak egiten eta Yucca-ren kontrako plan honek Eusko Jaurlaritzako Itsasertzen Zuzendaritza Orokorroraren eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Departamentuaren onespina izan du.

El departamento de Medioambiente del Ayuntamiento ha llevado a cabo una campaña para eliminar una especie calificada como invasora de las dunas de la playa de Santiago. Se trata de la planta Yucca Gloriosa. Según un informe redactado por el Natur Taldea, esta planta se introdujo en un jardín de una finca cercana, a mediados de los años 80 la Yucca fue citada por primera vez en las dunas fijas de la playa de Santiago. Mediante esta intervención se han extraído un total 48 plantas de raíz.

Mugi zerbitzuak urtea bete du

Urtebete hau proba pilotu bezala erabili du Udalak eta orain zerbitzua hobetu eta indartzeko urratsak emango ditu.

La experiencia piloto del servicio Mugi ha ofrecido al Ayuntamiento nuevas propuestas para afianzar el servicio.



Irudian, Mugi zerbitzuko bizikletak kiroldegiaren alboko alokairu-gunean.

bizikletak maileguan hartzeko MUGI zerbitzuak urtea bete du abian jarri zenetik eta orduetik hona hainbat prestazio eskaini ditu herritarren artean. Urtebete hau proba pilotu gisa erabili du Udalak eta orain, emaitzak eta balorazioak esku-artearen, zerbitzua hobetu eta indartzeko urratsak ematen jarraitzeko asmoa dauka Udalak.

Gaur egun, 515 erabiltzaile ditu MUGI zerbitzuak; horietatik 286 dira Zumaian erroldatuak, eta 57 jubilatutako dira. Horrez gain, 30 pertsona daude 21

erabilpeneko txartelera harpidetuak eta beste 23k, berriz, 90 erabilpeneko hautua egina daukate.

Zerbitzua martxan jarri zenetik, guztira, 10.141 mailegu eskaini ditu bizikleta zerbitzuak. Urtebete guztia kontuan hartuta, joan den urteko urria izan zen mailegu gehien eskaini zituen hilabetea, 1.665 prestaziorekin. Iazko abuztua eta iraila ere mailegu asko egin ziren hilabeteak izan ziren (1.143 eta 1.411 mailegu, hurrenez hurren), eta baita aurtengo martxoa (1.199) eta apirila ere (1.062). Neguko hilabeteetan maileguk

behera egin dute; batez ere abenduan (300) eta urtarrilean (362). Oro har, esan daiteke astegunean gehiago erabiltzen direla MUGI zerbitzuko bizikletak asteburuetan baino eta 16:00retatik 20:00etarako ordu tartean estimatzen da zerbitzua gehien.

Informazio guneen arabera, berriz, Amaia plaza da gehien erabiltzen den mailegu gunea, eta horren atzetik, daude kiroldegia, Vitoriano Arrate kalea, eta Geltokia, hurrenez hurren. Igor Garate zumaierak ere Amaia plaza alokairu gunea erabiltzen du



Igor Garate

“Sagarbide auzoan egiten dut lan eta niri oso ondo etortzen zait bizikleta lanera joateko”.



Carmen Zendoia

“Normalean bizikleta Amaia plaza hartu eta kiroldegiko gunean uzten dut”.

gehien. Duela bi hilabete egin zen MUGI zerbitzuko harpidedun eta bera “oso gustura” dago prestazioarekin: “Ayra Durex-en egiten dut lana eta niri oso ondo etortzen zait bizikleta lanera joateko. Amaia plaza hartzen dut, hemen bizi naizelako, eta bizikletan joaten naiz lanera. Kiroldegian uzten dut bizikleta eta niri primeran datorkit zerbitzua”. Hala ere, zerbitzua ez du lanera joateko bakarrik erabiltzen Garatek. “Askotan joaten naiz buelta bat ematera, eta amarenera joaten naizenez bazkaltzera, Vitoriano Arraten uzten dut gero bizikleta”, dio.

Zerbitzuak zenbait akats izan dituela ere aipatu du Garatek. Izan ere, Amaia plaza alokairu-guneak estaldurarekin zenbait arazo izan dituela aipatu du. Horrez gain, zerbitzuaren ordutegia ere zenbait momentutan ez dela zuzen bete gaineratu du: “erreleboan egiten dut lana eta goizeko seietan sartzen naizenean lanera, 5:40ak aldera hartzen dut bizikleta. Zerbitzua, berez, 5:30ean hasten den arren, noiz edo noiz gertatu izan zait itzalita aurkitzea”.

Carmen Zendoia joan den urteko abendutik da Mugi zerbitzuko erabiltzailea. Abenduan atera zuzenez erabiltzaile txartela, 21 bidaietakoa atera zuela dio, “bestela segituan berriro atera beharko nuelako”. Normalean, Amaia plaza hartu eta anbulatoriora edo kiroldegirako ibilbidea egiten duela adierazi du: “orain, adibidez, medikuarenera noa”. Zendoia ere aurkitu izan da eragozpenen batekin noiz edo noiz. “Batean etorri eta bizikletarik ez zegoen Amaia plaza, eta beste batean, berriz, katea aterata zuten bizikleta tokatu zitzaidan”. Baina

oro har, eta tartean behin ibiltzen badu ere, “gustura” dago Zendoia bizikletak alokairuan hartzeko zerbitzuarekin.

“Urtebeteko esperientzia pilotuak ikasteko balio izan digu, eta baita arazoak detektatzeko ere”.

Urtebeteko esperientzia pilotuak zerbitzuaren indar-guneak eta ahulguneak identifikatzeko balio izan dio Udalarari, eta orain behar horien araberrako erantzunak ematen saiatu da Udaleko Ingurumen saila. Andoni Etxaniz saileko buruak dioenez, “urtebete honek ikasteko balio izan digu, eta baita arazoak detektatzeko ere, gero konponbideak bilatzeko eta horrekin zerbitzua hobetzen jarraitzeko”.

“Lehenengo mailegu guneei beste bi gehituko zaizkie; bata Beheko plaza eta bestea Narruondo auzoan”.

Hori horrela, zenbait aldaketa izango dira zerbitzuan datozen hilabeteetatik hasita. Batetik, alokatzeko gune gehiago jarriko dira herrian zehar. “Lehenengo mailegu guneei, beste bi gehituko zaizkie; bata, Beheko plaza eta bestea, Narruondo auzoan”, azaldu du Aitor Ibarguengoitia Udaleko Ingurumen teknikariak. Guztira, 74 giltzarrapo edo euskarri jarriko dituzte, eta malguak izango dira giltzarrapoak bakarka gune batetik bestera mugitzeko. Ibarguengoitia esanetan, “58 bizikletak osatuko dute zerbitzua, baina batzuk gorde egingo dira matxuratutakoak konpondu bitartean, ordezkatzeko”.

El servicio de alquiler de bicicletas Mugi ha cumplido su primer año y desde su puesta en marcha hasta hoy se han ofrecido más de 10.141 prestaciones. Ya son 515 personas usuarias del servicio, de las cuales 58 son jubiladas. Durante todo este año, el mes que más servicios se realizaron fue octubre con aproximadamente 1.665,

seguido de noviembre con más de 1.400 y agosto con 1.143.

El punto de alquiler más frecuentado, por su parte, ha sido el de la plaza Amaia, seguido por el del polideportivo. El zumaiarra Igor Garate también suele coger la bicicleta en la plaza Amaia. Según comenta, es usuario de Mugi desde hace dos meses y

el servicio le viene “muy bien” para ir a trabajar a la empresa Ayra Durex en Sagarbide: “Cojo la bicicleta en la plaza Amaia, y luego la dejo en el punto de información del polideportivo”. Carmen Zendoia también suele frecuentar el punto de alquiler de la plaza Amaia, pero en su caso, normalmente lo utiliza para ir al polideportivo o al ambulatorio.



Ohiko bizikletez gain, bost triziklo eskainiko ditu zerbitzuak. Mailegu gune bakoitzean bat jarriko da, Narruondo auzoan izan ezik. “Jende nagusiarentzat, edota urritasunak dituzten herritarrentzako aproposak izan daitezke mota honetako bizikletak. Trizikloen erabiltzaileek txartel bereziak izango dituzte”.

“Lehengo ordutegian eskainiko da zerbitzua, baina konpontze lanak ordutegi murriztagoan egingo dira”

Zerbitzuaren konpontze lanetarako ordutegia ere egokitu egingo da, gastuak murriztu ahal izateko. Andoni Etxaniz Ingurumen zinegotziaren esanetan, “lehengo ordutegian eskainiko da zerbitzua, baina konpontze lanak ordutegi murriztagoan egingo dira. Maiatzetik urrira eta azarotik apirilera bitartean egingo dira bizikleten, eta oro har, azpiegituren edota instalazioen konponketak, 18:30etik 22:00etarako

ordutegian. Aldiz, eragozpen edota kolapso egoeretan Udalaren baliabide desberdinak erabiliko lirateke arazoa ahalik eta lasterren konpondu ahal izateko”.

Azpiegitura berriaren kontratazioa egina dauka dagoeneko Udalak eta Rezikletas Elkarte Kooperatiboa arduratuko da horretaz. Finantziarioa, berriz, Udalak lortutako laguntzetatik bideratuko da. Krisiari aurre egiteko bideratutako laguntzek, obra eta hornikuntza lanen egikaritzea zehazten zuten deialdi honetarako eta martxoan eman zitzaion Udalak egindako proposamenari onarpena. Aurreikuspenen arabera, uztaila erdia aldera egokituko dute MUGI zerbitzuaren azpiegitura berria herriko puntu desberdinetan. Etxanizek dioenez, “zumaiarrok ematen diogu zentzua zerbitzuari eta herritarrak animatu nahiko nituzke, guztion artean guztion eskura jarri dugun zerbitzu hau erabil dezaten. Zumaian mugi bizikletaz”.

La experiencia piloto del servicio MUGI ha valido para detectar los puntos fuertes y débiles de la prestación y ahora el Ayuntamiento introducirá mejoras en el servicio para responder en la medida de lo posible a las carencias detectadas. En ese sentido, habrá ciertos cambios en los próximos meses. Entre otras medidas, el

consistorio incorporará nuevos puntos de alquiler en la plaza Eusebio Gurrutxaga y en el barrio Narruondo. Según explica el concejal de Urbanismo y Medioambiente Andoni Etxaniz, “57 bicicletas completarán el servicio, y aparte de las habituales bicicletas, se colocarán 5 triciclos para gente que no sepa andar en bicicleta o

para personas discapacitadas”. El Ayuntamiento ya tiene fijada la contratación de la nueva infraestructura y la Sociedad Cooperativa Rezikletas será quien se encargue de su implantación. Según las previsiones, a mediados del mes de julio se procederá a la instalación de la nueva infraestructura.



Aste Berdean Mugi-ko txartela opari

aste Berdeko bizikleta ikastaroa egiten dutenei, aurten lehen aldiz, MUGI zerbitzuko txartel bana oparituko die Udalak. Ekainaren 7tik 12ra bitartean ospatuko da aurten Aste Berdea eta ohi bezala ingurumenari

lotutako gaiak eta ekintzak egingo dira: urpeko zinema emanaldia, argazki rallyko sari-banaketa ekitaldia, bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa, marrazki erakusketa edota ‘gizatze ekonomikoa’ ikastaroa.

Hondartzan ere ingurumena errespetatuz



Ezkerretik eskuinera Ingurumen teknikaria, hondartza-hezitzailea eta Ingurumen zinegotzia.

Zumaiako Udalak udalerririk duen ingurune aberatsa zaintzeko helburuarekin, urrats berri bat ematear da. Izan ere, Ingurumen Sailak bultzatuta, Udalak hondartza-hezitzaile bat jarriko du uda partean Zumaiako bi hondartzetan. Mari Bernal zumaiarrak beteko du hezitzaile postu hau eta bere esanetan, “hondartzetan zentzuzko jarrera eta erabilera bultzatzea izango da nire lana”. Ingurumen ikasketak eginak ditu Bernalek eta esan du, “hondartzen kalitatea hobetzea” izango dela helburua, “horrekin, gure bizitza kalitatean ere hobekuntzak emateko”.

Andoni Etxaniz Ingurumen zinegotziak azaldu duenez, “ISO 14001 proiektuaren lanketa barnean kokatzen da egitasmoa, eta besteen artean, honako funtzioak izango ditu hondartza-hezitzaileak: hondartzetan ingurumena errespetatzeko zaintza, kontrola eta informazioa eskaintzea, uraren kalitatearen inguruko informazioa helaraztea, hondartzen eta inguruko ekosistemen ingurumen baloreak transmititzea, edota jarritako edukiontzien erabilpen zuzenaren inguruko argibideak ematea”.

Ekainetik irailera hondartzetan

Aitor Ibarguengoitia Ingurumen teknikariak argitu du dagoeneko lanean hasita dagoela hondartza-hezitzailea: “orain aurre-lan batzuk prestatzen ari da, eta ekainaren 15ean hasiko da hondartzetan. Hondartzez gain, Arbustaingo arrapala, Gernikako parkea edota Infenupe Algorriko kaletan ere jarraipena egingo du hondartza-hezitzaileak”. Irailaren 15era bitartean ariko da Bernal hondartzetan lanean. Gero, jasotako informazioa landu eta txostena egingo du.

“Lan nagusia jendea informatzea, sentsibilizatzea eta hondartzetan jarrera onak bultzatzea izango da”

Mari Bernalek argi utzi nahi izan du bere lana ez dela izango hondartzetako udaltzainen parekoa: “ez dut isunik jarriko, eta ezta jendea obligatuko zenbait bete-behar zehatz egitera. Lan nagusia jendea informatzea, sentsibilizatzea eta jarrera onak bultzatzea izango da”. Horretarako, hainbat bitarteko jarriko dituztela aipatu

dute: “momentu hauetan bitarteko horiek prestatzen ari gara: irteera gidatuak, mahai didaktikoak, erakusketak...” Horrekin batera, hondartzeko zerbitzuen jarraipena emateaz ere arduratuko da hondartza-hezitzailea, dutxak, komunka, iturriak, edota paperontziak ikuskatuko ditu. “Horrez gain, hondarraren eta uraren egoera, edota dunen egoera ere zaintzea izango da nire lana”.

el Ayuntamiento de Zumaia ha contratado una educadora para recorrer las playas de Itzurun y Santiago con el propósito de dar a conocer el valor de estos puntos y fomentar actitudes respetuosas con el medioambiente. Mari Bernal será quien se encargará de dicha labor y según ha señalado, “el objetivo será mejorar la calidad de nuestras playas, y con ello mejorar también la satisfacción de los usuarios de las mismas”. El 15 de junio, fecha en la que se abrirá la temporada de playas, comenzará su labor en las playas.

Etxebizitza premia eta eskaria Zumaian



Zumaia Udalak etxebizitza premia eta eskaria aztertzeko ikerketa egin berri du Aztiker Jendarte-Ikerketaren bitartez. Herriko 648 familia eta horiei dagozkien 1.918 familiakide hartu dituzte ikerketarako lagin gisa eta otsaileko hiru astetan egin zuten galdeketa. “Zori sistema” egin dute aukeraketa, “herriko guneen eta auzoen arteko presentzia orekatua bilatzeko”.

Ikerketaren arabera, zumaiarren % 4,0 (373 herritar) dago lehen etxebizitza eskuratzeko premian; batez ere, gurasoengandik emantzipatzeko edo bikotean bizi ahal izateko. Horietako gehienak, gainera, 20 eta 34 urte bitarteko gazteak dira. Eusko Jaurlaritzaren datuekin alderatuta, lehen etxebizitza eskuratzeko premia apur bat handiagoa da Zumaian Gipuzkoan baino. Horrekin batera, bertako familien %6,2k

(191 familia) daukate etxebizitzaz aldatzeko premia, batik bat, egungoa leku txarrean dagoelako edota etxebizitza jabetzan eduki nahi dutelako. Portzentaje hori ere, Gipuzkoako familia premiadunen portzentajea baino gorago dago.

Etxez aldatuko liratekeen 191 familia horien etxebizitzak libre geratuko liratekeela kontuan hartuta, eta lehen etxebizitza eskuratzeko luketen horietatik batzuk bikotean eta taldean egingo luketela aintzat hartuta, 283 etxebizitza nahikoa lirateke Zumaian etxebizitza premia eta eskariari aurre egiteko.

Jabetzan nahiago

Edukitze erregimenaren arabera, eta etxebizitza jabetzan edo alokairuan nahiago luketen galdetuta, zumaiarren gehiengoak dio (%44,4k) etxebizitza jabetzan nahiago luketela. Aldiz, %27,8ak dio alokairuan nahiago lukeela,

eta gainerakoari (beste %27,8ari) berdin zaio alokairuan edo jabetzan hartu. Etxebizitzan aldatzeko premian daudenen artean ere, jabetzaren erregimena nagusitzen da. Kasu horretan, bi herenek (%66,8k) jabetza lehenetsi dute, eta beste %14,6ak, berriz, jabetza baino nahiago dute alokairua. Gainerako %18,6ari berdin zaio jabetzan edo alokairuan izan.

Etxebizitza, arazo larrietakoa

Zumaia bizilagunentzat etxebizitza arazo larrietakoa da, hain zuzen, %63,9arena da iritzi hori. %9,9aren iritzi, etxebizitzarena da arazorik larriena eta beste %25,0 batentzat ez da arazo larrietakoa. Aldiz, zumaiarren %1,2ak ez du uste etxebizitza arazo denik.

Etxebizitzaren inguruko politikei dagokienez, galdetzailuek lau neurri aurkeztu dizkiete elkarrizketatuei, eta azaldu dutenez, laurek jaso dute babes zabala. Babes gehien jaso duen neurria hau da: babes ofizialeko etxebizitzak eskaintzea (67,1 oso ados eta %31,2 ados). Horren ondoren, batez ere gazteei begira, bost urterako alokairu merkeak eskaintzea azal du indar handiz (56,1 oso ados eta %35,9 ados). Etxebizitza hutsak merkaturatzearen alde azaldu dira, halaber, hamarretik zortzi baino gehiago. Eta laugarren aukera ere, eraikinen beheko solairuak etxebizitza gisa erabiltzeko araudi-aldaketak egitearen proposamena ere zumaiar askok babestu dute (33,5 oso ados eta %44,4 ados).

Según el ‘Diagnóstico sobre la necesidad de vivienda en Zumaia’ realizado por la empresa Aztiker a petición del Ayuntamiento, el 4% de los vecinos de Zumaia (373 personas) se halla en necesidad de conseguir su primera vivienda, principalmente porque quieren vivir en pareja o porque pretenden emanciparse. Del mismo modo, la necesidad de cambiar de vivienda, asciende a un

6,2% de entre todas las familias de Zumaia (unas 191 familias). Esa necesidad puede ser bien porque el número de miembros de su familia ha aumentado o disminuido, bien por motivos de salud, o porque les resulta inadecuada para las personas de la familia que se han hecho mayores por ejemplo. A través de de esas estimaciones, el diagnóstico revela que 283 viviendas serían suficientes para hacer frente a esta demanda.

En cuanto al régimen de posesión de la vivienda el 44% de los entrevistados opta por tener la vivienda en propiedad. Sin embargo, el 27,8% prefiere que sea en alquiler, y al resto le da igual que sea en propiedad o en alquiler. Por último, para el 63,9% la situación de la vivienda es uno de los problemas más graves que tenemos hoy en día.

Balio anitzeko eraikina herriaren erdigunean



aterpetxea, lorategi publikoa, jatetxe/taberna eta erabilera anitzeko aretoa izango dira komentuarien etorkizuneko proiektuaren ardatz nagusiak. “Hortik abiatuta proiektuaren idazketa abiatuko dugu aurten, eta behin proiektua egina eta zehaztuta daukagunean, egingo dugu proiektuaren bideragarritasun plana”, azaldu dute Iñaki Agirrezabalaga alkateak eta Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziak.

Eraikinaren erabileran herritarrek euren ekarpenak egiteko prozesu bat abian jarri zuen Udalak aurreko urtean. Dinamika hartatik zazpi proiektu edota proposamen jasoziren herritarren eskutik. “Herritarrek egindako proposamen horiek aztertu eta hainbat elementu komunean zituztela ikusi genuen. Beraz, komunean ziren ezaugarri horiek batzen saiatu gara Udalean, beste zenbait helbururekin batera”, esan du Agirrezabalaga alkateak. Ildo beretik, “ateak zumaiar guztiei irekitzea izan da asmoa, eta era horretan, erabiltzaile ahalik eta anitzenak bilatzen saiatu gara”, azaldu du Etxanizek.

Lau ardatz nagusi

Aterpetxe gisa egokituko da eraikina batetik eta hasiera bateko asmoen arabera, “urte guztian egongo da zabalik zerbitzua. “Aterpe irekia izango da. Familientzako, gazteentzako,

